ALHAO

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko irailaren 11, ostirala • 104 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# OKONDOKO UDALA

**Jendaurrean jartzea hilerriko tasaren 2026ko errolda**

Okondoko udalerriko hilerri tasaren 2026ko errolda egin ondoren, Alkatetzaren 2026ko irailaren 3ko 156 zenbakiko dekretu baten bidez onetsi da.

Errolda jendaurrean egongo da 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn ondorengo egunetik kontatzen hasita, eragindako zergadunek hura aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Interesa dutenek espedientea udal bulegoetan aztertu ahal izango dute, 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan xedatutakoaren arabera, erroldan alta ematearen likidazioa jakinarazi ondoren, kolektiboki jakinarazi ahal izango dira ondorengo likidazioak horrela ohartaraziko luketen ediktuen bidez.

Erroldaren eta likidazioen onespenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da alkatetzan, eta horretarako hilabeteko epea izango da jendaurrean jarri ondorengo egunetik aurrera.

Erreklamaziorik egon ezean, behin betiko onetsitzat joko da, eta honela kobratuko da:

— Borondatezko epea: 2026ko urriaren 1etik abenduaren 1era.

— Epe exekutiboa: 2026ko abenduaren 1etik aurrera egiten diren ordainketek legezko errekarguak, berandutze interesak eta kostuak sortuko dituzte.

Ordaintzeko tokia eta modua:

— Banketxeetan helbideratutako ordainketetan zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko, eta bankuak zordunketa 20206ko azaroaren 3an egingo die.

— Ordainketa helbideratuta ez dutenek udal bulegoetan jaso behar dute ordainagiria, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, eta Nafarroako Rural Kutxan egin diru sarrera.

— Udalaren web orriko «Nire ordainketa» ordainketa pasabidearen bidez.

Okondo, 2026ko irailaren 4a

*Alkatea*
*JUAN JOSE ESCUZA DEL CAMPO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.09.11 05:19:18 Z